

Aitor López, 3. mailako arbitroa:

“Gaztaroari uko egin behar diote arbitro izan nahi dutenek”

15 urterekin arbitro-eskola batean izena eman zuen Aitorrek eta ordutik hona 2.000 partida baino gehiagotan aritu da epaile. Bost denboraldi eman ditu dagoeneko 3. mailan eta, azkenaldian, arbitrajea uzteko ideia darabil buruan. Azken 7 urteak Malagan eman dituen arren, 36 urteko ermuar hau noizbehinka bueltatzen da bere jaioterrira.

- **Bizkaian arbitratu zenuen lehen partida. Gogoan duzu?**

Bai, 16 urte nituen eta Durangoko ‘Extremeño Futbol Taldeko’ 1. kadete mailako partida arbitratu nuen. 2 txartel hori atera nituen eta emaitza banako berdinketa izan zen. Hurrengo 2 urteetan kadete, infantil eta juveniletan ibili nintzen.

- **2. eta 1. maila erregionaletan eta Preferentean ibili eta gero Malagara joan zinen. Arbitratzen jarraitzeko asmorik bazenuen?**

Ez nekien jarraitu ahal izango nuen. 29 urte nituen eta, oso nagusia ez banintzen ere, erretiratzeko asmoz joan nintzen. Baina hara heldu eta lagunik ez nuen arbitratzen hasi nintzen, zerbait egitearren. Eta... hara! Serio hartu, entrenatzen hasi eta 3. mailara igo nintzen segituan.

- **Zeintzuk baldintza bete behar dira hurrengo mailara salto egiteko?**

Partida guztietan ‘informazioa’ batek puntuatzen du arbitroaren lana, 1. mailako partiduetan bezala: txartelak modu egokian erabili dituzun, sasoi onean zauden, partidua kontrola izan duzun... Bestalde, futbol-arautegiari buruzko azterketa teorikoak eta proba fisikoak egiten ditugu. Urte bukarran, batez besteko nota oneak dituzten arbitroak hurrengo mailara igotzen dira.

- **Partida bukatutakoan, egindako lana aztertzen duzu?**

Bai, marrazainekin komentatzen dut. Huts egiten dugunean ez gara gure artean haserretzen, pertsonak garelako eta niri gertatu izan zait zerbait adierazi eta etxean, telebistan, partida ikusterakoan esatea: baina zer egin dut?

- **Eta nola egiten duzu lo gau horretan?**

Ondo, nik ez diodako ez jokalariei ez nire buruari iruzurrik egiten: ikusten dudana adierazten dut. Marrazainek diotena ere eztaba daezina da niretzat.

- **Nolakoa zara arbitro moduan?**

Zuzena eta inpartziala.

- **Nor miresten duzu?**

Delgado Ferreiro eta Paradis Romero. 1. mailan aritzen dira eta lagunak ditut.

- **Honetaz gain, lanik egiten duzu?**

Nire lana daukat, baina honek asko laguntzen dit, 500 eta 800 euro artean irabazten ditudalako hilero. Mundu honetan dirua ez da garrantzitsua baina tamalez, krisia dela eta, jende asko hurbildu zaigu diruagatik.

- **Arbitro gazteei ere klaseak ematen dizkiezu...**



Bai, parrandak alde batera uzten badituzte, etorkizun polita izan dezakete. Nik, konturatu orduko, 30 urte nituen eta zaharregia nintzen igotzen jarraitzeko. Neurri batean, gaztaroari uko egin behar diote aurrera jarraitu nahi dutenek.

- **Inoiz lagatzea pentsatu duzu?**

Azken urtean bueltak ematen ari naiz: Delegatua izan nintekeen, ‘informazioa’ edo entrenatzaile, baina futbola alde batera erabat utzi barik.

Dorleta Vidal



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**



Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!

 Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12





DANAONA
IZOZTUAK ETA
AURREKOZINATUAK



GOIENKALE Z/G
ERMUA
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7
ARRASATE
Tel. 943 770 598